

EAEko hamar gaztetik lauk azken hilean liburutegietara edo mediatekatara joan direla diote

Ehuneko hori orain dela bost urtekoa baino garaiagoa da.

2012ko urriaren 24an Liburutegien Eguna ospatzen dela eta, Gazteen Euskal Behatokiak datu berri batzuk kaleratu nahi ditu. Datuok Euskadiko gazteak liburutegietara eta mediatekatara joateko ohiturari buruzkoak dira. Gazteen Euskal Behatokiak 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagina adierazgarri bati egindako inkesta batetik datoz datu horiek.

2012ko martxoan EAEko gazteen % 39k adierazi zuten aurreko hilean liburutegi edota mediatekaren batera joan zirela.

Eraitza horiek 2007 eta 2008 bitartean Kulturaren Euskal Behatokiak eginiko antzeko inkesta batetik ateratakoekin alderatuz gero, ikus dezakegu liburutegietara joateko ohitura zabaldu egin dela eta bost urteko epean % 33tik % 39ra pasatu dela.

Gure arreta 2012ko datuetan jarrita, esan dezakegu neskek mutilek baino zabalduago dutela liburutegietara joateko ohitura (% 45 eta % 34, hurrenez hurren).

Adinean behera egin ahala handiagoa da liburutegietara joaten diren gazteen ehunekoa, eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean laurdenak baino pixka bat gehiago badira liburutegietara hurbiltzen direnak (% 28), 15 eta 19 urte bitartekoen artean erdiak baino gehiago izatera pasatzen dira (% 54).

Gazteak bizi diren udalerriaren tamainak ere eragina du liburutegietara joateko ohituran: udalerri ertainetan edo hiriburuetan bizi direnak gehiago joaten dira (% 40), 10 000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi direnak baino (% 35).

Lurralde historikoei dagokienez, Arabako gazteak (% 43) Gipuzkoakoak baino neurri handiagoan joaten dira liburutegietara (% 41), eta azken hauek Bizkaikoak baino gehiago (% 37).

Azkenik, Gazteen Euskal Behatokiak gogorarazi nahi du Dokumentazio Zentroa duela eta bertan fondo bibliografiko zabala duela, ia 4000 monografia eta gazterian espezializatutako 80 aldizkari inguru biltzen baititu. Dokumentazio Zentro hori zerbitzu publikoa eta doakoa da eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan dago.

Cuatro de cada diez jóvenes de la CAPV afirman haber asistido a bibliotecas o mediatecas en el último mes

Este porcentaje es superior al registrado hace cinco años.

Con motivo de la celebración del Día de las Bibliotecas, 24 de octubre de 2012, el Observatorio Vasco de la Juventud va a aportar algunos datos inéditos relativos al hábito de asistencia a bibliotecas y mediatecas por parte de la juventud vasca. Dichos datos proceden de una encuesta realizada por el Observatorio Vasco de la Juventud en marzo de 2012 a una muestra representativa de la juventud de la CAPV de 15 a 29 años.

En marzo de 2012 el 39 % de las personas jóvenes de la CAPV afirmaba haber asistido a bibliotecas o mediatecas en el mes precedente.

Comparando estos resultados con los recogidos en una encuesta similar realizada por el Observatorio Vasco de la Cultura entre 2007 y 2008, vemos que se ha producido un incremento en la asistencia a bibliotecas que ha pasado de un 33 % a un 39 % en el plazo de cinco años.

De acuerdo a los datos de 2012, las chicas acuden a bibliotecas en mayor medida que los chicos (45 % frente a 34 %).

A medida que desciende la edad se incrementa notablemente el porcentaje de jóvenes que acuden a bibliotecas, pasando de algo más de una cuarta parte entre quienes tienen de 25 a 29 años (28 %) a más de la mitad entre quienes tienen de 15 a 19 años (54 %).

El tamaño de municipio también incide en la asistencia a bibliotecas: las personas jóvenes residentes en municipios medianos o en las capitales vascas las frecuentan en mayor medida (40 %) que quienes residen en municipios de menos de 10 000 habitantes (35 %).

Analizando la asistencia por territorios históricos vemos que la juventud alavesa (43 %) asiste en mayor medida que la guipuzcoana (41 %) y esta más que la vizcaína (37 %).

Por último, el Observatorio Vasco de la Juventud recuerda que dispone de un Centro de Documentación con un fondo bibliográfico con cerca de 4000 monografías y alrededor de 80 revistas especializadas en juventud. Este Centro de Documentación es de acceso público y gratuito y está dentro de la Red de Lectura Pública de Euskadi.